

thinking **Fadura**

Getxoko Kirol Parke Berria

HIRI PROIEKTUAK LEHENESTEKO
METODOLOGIA



'thinking Fadura.
Getxoko Kirol Parke Berria`
partaidetza-prozesutik eratorritako
proiektuei lehentasuna
emateko metodologia.

2019KO UZTAILA

ÍNDICE

1. PROIEKTUAREN ZIKLOAK TESTUINGURUAN JARTZEA	4
2. LEHENTASUNAREN HELBURUAK	5
3. LEHENTASUNAREN IRIZPIDEAK	6
4. HASIERAKO IRIZPIDEAK	7
5. BALORAZIOA	123
6. DELIBERAZIOA / BALIOZKOTZEA	163
7. LEHENTASUNEZKO IRIZPIDEEN ALDAKETAK	16
8. KOMUNIKAZIOA	16
9. PROIEKTUAK EGIKARITZEA	16

1. PROIEKTUAREN ZIKLOAK TESTUINGURUAN JARTZEA

Hiri-proiektu guztiek sektore publikoan zein pribatuan antzeko prozesua jarraitzen dute, haien izaera, tamaina, iraupena eta aplikazio-eremua aintzat hartu gabe. Prozesu honetan, lehenbizi, identifikatu egiten dira, eta proiektuaren ezarpenarekin amaitzen da.

Giza Kokalekuetarako Nazio Batuen Programaren (NBE-Habitat) hiri-proiektuak aurrera eramateko gida metodologikoa oinarritzat hartuz, *thinking Fadura* partaidetza-prozesutik eratorritako proiektuak lau fasetan burutzen ditugu: **identifikazioa, multzokatzea, lehenespena eta egikaritzapena**.

Identifikazioa

Etorkizuneko kirol-parkean kirol-praktika erregularra sustatzeko, ingurumeneko hobekuntzak lortzeko, aisialdiaren, osasunaren eta kirolaren sektoreetan enplegua areagotzeko eta espazioen sarbidea eta kontrola hobetzeko elementu berriak sartzearen inguruan Getxoko herriarren iritzia jasotzeko helburuarekin egin da *thinking Fadura* partaidetza-prozesua.

Identifikazio-fase honetan, **proiektuen zerrenda** bat egin da partaidetza-prozesuko 1.879 ekarpenetatik ateratako 218 jarduera-proposamenekin: 110 esku-hartze fisiko, 65 esku-hartze parkearen kudeaketari buruz eta 43 aspektu gobernantzarekin lotuta.

Multzokatzea

Proiektuetan multzokatu dira *thinking Fadura* partaidetza-prozesutik ateratako 218 jarduera-proposamenak. Agiri honen I. eranskinean xehatuta daude. Proiektu horietako bakoitza bere artean erlazionatutako jarduera-proposamenak lerro nagusi baten inguruan—irisgarritasuna, mugikortasuna, segurtasuna, espazioen hobekuntza edo zerbitzuen katalogoa kasu—multzokatzearen emaitza da.

Ekarpenak partaidetzako bide formal eta informaletatik jaso daitezke eta lehendik dauden proiektuetara gehituko edo multzokatuko dira, edo, hala badagokio, proiektu berria egitea aztertuko da.

Proiektu horiei lotuta, ezaugarri baldintzatzaileak aztertu eta egikaritzapenaren sekuentzia egin behar dira. Laburbilduz, proiektu bakoitzak informazio hau bilduko du:

- > ID proiektua.
- > Proiektua.
- > Helburuak.
- > Deskribapen laburra.
- > Hurrengo proiektuak.
- > Kostuak:

- Aukeratutako kostuen azalpena.
- PROIEKTUAREN kostua.
- EGIKARITZAPENAREN / EZARPENAREN kostua.
- USTIAPENAREN kostua.
- Kostua guztira.

› Jarduera-proposamenak:

- Jarduera-proposamen guztiak.
- Jarduera-proposamenak kategorietan multzokatuta: irekia, irisgarria, osasungarria, jasangarria, barneratzailea eta berritzailea.
- Jarduera-proposamenak tipologiaren arabera multzokatuta: fisikoa, kudeaketa eta gobernantza.
- Jarduera-proposamenak diagnostikoko ardatzaren arabera multzokatuta: espaziala, hiritarra, ingurumena, sozioekonomikoa, segurtasuna, erabilera, mugikortasuna eta aniztasuna.

5. LEHENTASUNAREN EMAITZA atalean lehenetsitako proiektuen zerrenda xehatzen da, lehenengo bozketa egin ostean.

Lehentasuna

Lehen esaten genuen bezala, jarduera-proposamenen multzokatze-prozesuaren ondorioz **proiektuen zerrenda** bat lortu dugu. **Agiri honen I. eranskinean xehatzen da.** Getxoko Udalak eta Getxo Kirolakek baliabide mugatuak dituzte aurreikusitako proiektu guztiak aldi berean egikaritu ahal izateko, eta, horregatik, egikaritze-ordena zehaztu behar da. Proiektuak egikaritzeko baliabideen eskuragarritasuna edo beste aldagai batzuk aintzat hartu behar diren aztertu beharko genuke aurrea. Eta, horrela balitz, nola jakin dezakegu zeintzuk diren?

Jarraian, Fadura kirol-parke berriaren eraldaketa aurrera eramateko proiektuak egikaritzeko lehentasunezko prozesuaren metodologia eta ibilbide-orria azaltzen ditugu.


2. LEHENTASUNAREN HELBURUAK

Proiektuak lehenestearen ondorioz helburu bikoitza lortu nahi da: batetik, **proiektuak baliabideen eskuragarritasunaren arabera ordenatzea eta** herritarrentzat onuragarrienak direnak lehenestea; eta, bestetik, **inplikaturako agenteen artean proiektuen koordinazioa erraztea**, bikoiztasunak ezabatu eta eraginkortasunik ezak eta gaitasunak ekiditeko.

Dena dela, bi helburu horiek ez dira nahikoa proiektu batzuk besteen aurrean lehenesteko; izan ere, udalerrirako balio handiena duten proiektuak zeintzuk diren jakiteko irizpideak zehaztu behar dira aurretik, egikaritu nahi diren proiektu guztiak ebaluatu ahal izateko.

Lehentasunezko sistemak proiektuak beren artean erkatzen ditu, lehentasun-ordena ezartzeko. Horretarako, konparaziozko irizpideak erabiltzen ditu, irizpide bakoitzari balio batzuk esleitzen

dizkiolarik. Koordinazioaren eremuan xede diren abantailak lortzeko, lehenetasuneko jardura horretan administrazioko eremu eta proiektuen ezarpenean inplikaturako agente guztiek parte hartu —edo, behintzat, ordezkarien gehiengoa eduki— behar dute.



3. LEHENTASUNEZKO IRIZPIDEAK

Proiektuen erkaketa irizpide anitzeko azterketa baten bidez egiten da, planak egikaritzean lortu nahi diren helburuek zehaztutakoa. **Lehenetasunerako gehienez ere 10 irizpide erabiltzea gomendatzen da.**

Fadurako kirol-parkearen eraldaketarako proiektuen lehenetasuneko irizpideak ezartzeko aintzat hartuko dira *thinking Fadura* partaidetza-prozesuan erabakitako hiri-garapenerako ikuspegia eta/edo Udaleko jardura-ildo berriak.

Balorazio-irizpideak definitzea funtsezkoa da lehenespen-jarduerarako. Irizpide horiek dokumentatu egin behar dira eta **izaera publikoa** edukiko dute. Proiektuen abiaraztea kudeatzen duen idazkaritza teknikoak Getxo Kirolaki iradoki diezaioke irizpideak berriro definitzeko prozesua has dezala.

Getxo Kirolaken eskaera betez, idazkaritza teknikoak irizpide orokorrak ezarri eta irizpideak egiaztatu eta galderak egiteko aditu-taldea aukeratzea proposatuko du. Era berean, irizpideen diseinuan hobekuntzak sartzeko helburuarekin, idazkaritza teknikoak entzute-kanalak edukiko ditu.

Idazkaritza teknikoak irizpide-aldaketa aktibatzen du baldin eta:

- › *thinking Fadura*-ren edo udalerriaren lerro politikoak aldatzen badira.
- › Irizpideen definizioan hobekuntzak detektatzen badira.

4. HASIERAKO IRIZPIDEAK

Hasiera batean, Getxo Kirolakek zehaztuko ditu lehentasunezko irizpideak. Edonola ere, etorkizuneko azterketetan irizpide horiek definitzeko aditu-taldea osatzeko aukera baloratuko da.

Hauen dira proiektuak lehenesteko hautatu diren **erreferentziazko irizpideak**:

1. Jatorria
2. Xedeak
3. Jasangarritasuna
4. Bideragarritasuna

Lehentasunezko jarduerak erantzuteko hiru **balio** aurreikusten ditu. Erantzun bakoitzak 0 eta 5 arteko balio bat du. Irizpide batean erantzun guztien gehieneko balioen batura puntuazioaren % 100 da.


Irizpidea	Gehieneko balioa	Gehieneko ehunekoa
1.Jatorria	5	100
2.Helburua	25	100
3.Jasangarritasuna	40	100
4.Bideragarritasuna	30	100
GUZTIRA		400

Balio guztien batura egiten da. Hiru erantzun-mota kanpo geratzen dira ordea, itemak proiektuaren egikaritzapenean izan dezakeen eraginaren ondorioz lehentasunezko sistemak desberdin funtzionatzen duelako. Erantzun horiek bitarrak izango dira: Bai/Ez.

Balio horiek hiru egoera hauetan eduki dezakete jatorria:

a. Arriskua. Proiektu baten egikaritzapenerako jatorrizko zirkunstantziak pertsonen edo ingurumenaren arrisku erreal edo potentzial bati konponbidea eman badiezaioke, lortutako puntuazioan 1.000 puntu gehigarri izango ditu. Proiektua automatikoki posizionatuko da, deliberazio-fasera pasatzeko.

b. Konpromisoa. *Arriskua* balio-motarekin gertatzen den eran, konpromisoren batengatik proiektua berehala egikaritu behar denean (diru-laguntza...), BAI erantzuna aktibatzean 1.000 puntu gehigarri emango zaizkio.



c. Bideragarritasuna. Litekeena da proiektu bat egikaritu ezin izatea aurrez beste batzuk egikaritu ez direlako edo proiektuak udalez gairategiren bat betetzen ez duelako. Arrazoi hori dela eta, bideragarritasun-irizpidea gaitzen da. Irizpide horren balioa BAI denean, irizpide bakoitzarekin lortutako puntuen batura 0rengatik biderkatuko da. Modu horretan, proiektuaren posizionamendu automatikoa deliberazioaren irismenetik kanpo geratuko da.

Irizpide bakoitzerako Getxo Kirolakekin egiaztatu eta behin betiko onartutako galdera- eta erantzun-sorta bat antolatzen da, eta proiektuek banan-banan nola erantzuten dieten ikustea da horiek ebaluatzeko modurik eraginkorrena.

Gero, irizpide bakoitzerako hautatutako galderak azaltzen ditugu. Gomendatzen da **irizpide bakoitzak 10 galdera baino gehiago ez izatea**, eta komenigarria da ere erantzun posibleak bostetik gora edo hirutik behera ez izatea.

Hasiera batean proposatutako irizpideak, galderak eta erantzunak:

1. Jatorria				
1	Ideiaren jatorria. Nondik dator ideia hori?	Balioa	Erakunde batetik	3
			Kolektibo edo pertsona-talde batetik	4
			Partaidetza-prozesu batetik	5

2. Helburua				
2	Parke irekia. Proiektuak kirol-parkea bere ingurunean txertatzen laguntzen du?	Balioa	Ez da garrantzitsua	1
			Irtenbideak ematen ditu, baina ez behin betikoak	3
			Epe luzera irtenbideak ematen ditu	5
3	Parke osasungarria. Proiektua erkidegoaren osasunerako onuragarria da?	Balioa	Eragin negatiboak ditu	1
			Eragin neutroa du	2
			Eragin positibo batzuk ditu	3
			Eragin oso positiboak ditu	5
4	Kirol-parkea Proiektuak jarduera fisikoa maiz egitea eta aisialdi osasungarria bultzatzen ditu?	Balioa	Eragin negatiboak ditu	1
			Eragin neutroa du	2
			Eragin positibo batzuk ditu	3
			Eragin oso positiboak ditu	5
5	Parke segurua. Proiektuak instalazioen eta/edo kirol-parkearen segurtasuna hobetzen ditu?	Balioa	Ez da garrantzitsua	1
			Irtenbideak ematen ditu, baina ez behin betikoak	3
			Epe luzera irtenbideak ematen ditu	5
6	Parke segurua. Proiektuak pertsona edo ingurumenerako arrisku errealei edo potentzialei irtenbideak ematen dizkie?	Arriskua	Ez	*
			Bai	*
7	Parke berritzailea. Proiektuak balio soziala, ingurumenekoa edo	Balioa	Ez du aparteko eraginik	1
			Zenbait onura ekar ditzake	3

ekonomikoa sortzeko ahalmena du?	Ahalmen handia eskaintzen du, modu jasagarrian, erkidegoa tartean sartuz	5
----------------------------------	--	---

3. Jasagarritasuna

8	Ingurumena. Proiektuak ingurumenerako onurak/hobekuntzak dakartza?	Balioa	Ingurumenari kalte egiten dio (neurri zuzentzaileak sartu behar dira)	1
			Ez da garrantzitsua	2
			Ingurumenaren inpaktua eta igorpenak murriztu egiten ditu nolabait	3
			Klima-aldaketa eteteko ohiturak aldatzen laguntzen du	5
9	Ingurumena. Proiektuak energia-eraginkortasunaren eta ingurunearen jasagarritasunaren ikuspegitik hobekuntzak dakartza?	Balioa	Eragin negatiboak ditu	1
			Eragin neutroa du	2
			Eragin positibo batzuk ditu	3
			Eragin oso positiboak ditu	5
10	Jasagarritasun soziala. Zer pertsona-talderi eragiten dio proiektuak?	Balioa	Talde zehatz bati eragiten dio	1
			Erabiltzaile-taldeari eragiten dio	3
			Bertako herritarrei eragiten die	5
11	Jasagarritasun soziala. Proiektuak azpiordezkatutako taldeak barne hartzen ditu?	Balioa	Talde horientzat ez du onura zehatzik	1
			Talde horien baldintzak hobetzeko zenbait neurri ditu	3
			Talde horiek hartzen ditu ardatz gisa	5
12	Jasagarritasun soziala. Proiektuak bizikidetza eta kohesio soziala hobetzen ditu?	Balioa	Bizikidetza eta kohesio soziala oztopatzen ditu	1
			Neutroa; proiektuak ez ditu zentzu horretan neurri zehatzak aurreikusten.	2
			Bizikidetzaren eta kohesio sozialaren baldintza batzuk hobetuko dituzten neurriak barne hartzen ditu	3
			Bizikidetza eta kohesio soziala hobetzean oinarritzen da	5
13	Jasagarritasun soziala. Proiektuak hezkuntza-ahalmena du?	Balioa	Neutroa; proiektuak ez ditu zentzu horretan neurri zehatzak aurreikusten	1
			Neurri batzuk hezkuntzaren eragina hobetuko dute	3
			Hezkuntzaren ahalmena hobetzean oinarritzen da	5
14	Ekonomia. Proiektuak zeharkako mozkin ekonomikoak dakartza epe luzera? Adibidez, enpleguak sortzea, inbertsioak	Balioa	Ez da mozkinik eta/edo balio ekonomikoko ekarpenik aurreikusten	1
			Epe luzera mozkin eta/edo balio ekonomiko gutxi emango ditu	2
			Epe luzera mozkinak eta/edo balio ekonomikoa sortuko ditu	3

	erakartzea...		Inbertsioak erakarri eta tokiko ekonomia hobetuko ditu	5
15	Ekonomia. Proiektuak erakundearen markari onurak dakartzkio?	Balioa	Neutroa	1
			Zenbait onura	3
			Marka sortzeko babes handia	5

4. Bideragarritasuna

16	Bideragarritasun exekutiboa. Proiektu hau beste batek baldintzatzen du?	Bideragarritasuna	Ez	*
			Bai	*
17	Bideragarritasun exekutiboa. Proiektuak talderen bat birkokatzen du?	Balioa	Birkokatze garrantzitsua	1
			Txikia edo onargarria	3
			Ez	5
18	Bideragarritasun exekutiboa. Proiektuak udalez gaindiko baimen bat behar du (beste administrazio publikoenak, Ihobe, Ura...)? Bai –Zain dago edo ez-Badaukat jada	Bideragarritasuna	Ez	*
			Bai	*
19	Bideragarritasun instituzionala. Proiektua bertako estrategiekin bat dator?	Balioa	Ez dago lerrokatuta	0
			Lerrokatzea aurreikusten da	3
			Gutziz lerrokatuta dago	5
20	Bideragarritasun instituzionala. Udaleko beste eremuek proiektua babesten dute?	Balioa	Ez dauka babesik, eta, izatekotan ere, gutxi	1
			Proiektuak beharrezko babesak lortzeko neurriak barne hartzen ditu	3
			Beharrezko babesak daude edo ez dira beharrezkoak	5
21	Bideragarritasun exekutiboa. Administrazioak gaitasun exekutiboa du?	Balioa	Gaitasunik eza edo hasiberria	
			Proiektuak gaitasun exekutiboa hobetzeko neurriak barne hartzen ditu	
			Egikaritzapenerako gaitasuna	
22	Bideragarritasun antolatzailea. Badago talde edo erkidegorik kogestioarako prest?	Balioa	Ez, ez dago	1
			Ez. Hasiberria edo sustapen-neurriekin	3
			Bai, erkidego bat badago	5
23	Bideragarritasun finantzarioa. Ekitaldirako gastu-aurreikuspena badago, edo egongo da?	Balioa	Ez daude edo gutxi daude	2
			Proiektuak behar diren baliabideak lortzeko neurriak barne hartzen ditu	3
			Beharrezko baliabideak daude edo ez dira beharrezkoak	5
24	Bideragarritasun finantzarioa.	Konpr	Ez	

Elementuren bat badago ekitaldi
honen egikaritzea oztopatuko
duenik? Diru-laguntza
garrantzitsuak edo bestelako
konpromisoa.

omiso Bai
a

5. BALORAZIOA

Proiektuak baloratzeko mekanismoa diseinatuta dagoenean —irizpideak, galderak eta erantzunak—, proiektuen balorazioarekin has daiteke. Helburu horretarako, taldea eratuko da eta proiektuari lotutako pertsonak eta/edo eremuak barne hartzen saiatuko gara.

Bide formal edo informaletatik jasotzen diren ekarpenekin proiektu berri bat sortuko balitz, baloratu egin beharko litzateke lehentasunezko egikaritze-proiektuen zerrendan sartu aurretik. Edonola ere, proiektuaren idazkaritza teknikoak proiektuen balorazioak berrikusteko **hiru hileko zikloa** ezarriko du eta proiektu berriak zein lehendik dauden proiektuen aldaketak jasoko ditu.

Lehenespen-jardueraren ondorioz zerrenda bat eskuratuko dugu eta proiektu bakoitzari buruzko informazioarekin fitxa egingo da gaur arte aurreikusitako eta oraindik definitzeko dauden egikaritzapeneko elementuekin: epeak, arduradunak, alderdi finantzarioak, aurreikusitako inbertsioak, etab.

Idazkaritza teknikoak lehentasun berriak aktibatzen ditu kasu hauetan:

- › Proiektu berriak daudenean.
- › Proiektuak amaitzen direnean.
- › Lehengo proiektuek aldaketa garrantzitsuak dituztenean.
- › Zirkunstantziengatik irizpideen balorazioa aldatzen denean.
- › Hiru hileko berrikusketa-zikloetan.
- › Zikloen artean, idazkaritza teknikoak proiektuen aldaketa guztiak erregistratzen ditu, balorazio-jardueran proiektu guztiak bere osotasunean aintzat hartu beharrean definizioan aldaketak jasan dituzten eta puntuazioari eragin diezaioketen horiei erreparatzeko.

6. DELIBERAZIOA/ BALIOZKOTZEA

Lehenespen-jardueratik proiektuen zerrenda bat eskuratuko dugu, puntuazio maximotik gutxienera ordenatuta. Alegia, puntuaziorik handiena lortu duten proiektuak agertuko dira aurrena.

Gero, lehen 8 edo 10 proiektuen deliberazioa egingo da, gehienez ere, **lehentasunezko egikaritze-proiektuak aukeratzeko**. Gomendatzen da urtean 5 hautatzea gehienez ere.


Deliberatzen hasteko, proiektuen zerrenda eta dagozkien fitxak hartzen dira abiapuntutzat. Informazioa ematen digute lortutako puntuazio osoari eta irizpide bakoitzeko (jatorria, helburua, jasangarritasuna eta bideragarritasuna) portzentajeari buruz, eta, modu horretan, proiektuak eraginkortasunaren ikuspegitik aztertzea posible da. Horrez gain, proiektuaren kostu osoa ezagutuko dugu eta arriskuari, konpromisoari edo bideragarritasunari lotutako balio bereziren bat aplikatu zaion jakingo dugu.

Proiektua	1.Jatorria	2.Helburua	3.Jasangarritasuna	4.Bideragarritasuna	Balorazioa guztira	Arriskua	Egikaritzeko konpromisoa	Ez da bideragarria	Emitza	Kostua guztira
1 proiektua	60	68	43	80	251	1	1	0	2.251	999.999 €

Eztabaidaren xedea proiektu bakoitzaren elementurik garrantzitsuenak aztertzea eta egikaritzeko proiektuen zerrenda egitea da. Zeregin hori errazte aldera, haztapeneko matrize bat erabiltzea proposatzen da **funtsezko bi elementu hauekin balora daitekeena**: egikaritzeko **“zailtasuna edo erraztasuna”** eta **“esperotako balioa ematea”**.

Eztabaida-metodo hau proposatzen da:

- › Eztabaidatzeko proiektu-sorta aukeratzea —egikaritze-fasean ez dauden lehenbiziko 8 edo 10 proposamenak—.
- › Proiektu bakoitza *post-it* batean idazten da, proiektuaren izenburua eta zenbakia adieraziz.
- › Lehentasunezko matrize batean, *post-it* bakoitza abzisa-ardatzean (bertikala) kokatzen da antzematen den zailtasunari jarraikiz. Zenbat eta zailtasun handiagoa izan, 0tik gertuago egongo da.
- › Gero, *post-it* bakoitza balio-ekarpenaren arabera koordinatuen ardatzean mugitzen da (horizontala). Zenbat eta balio handiagoa izan, 10etik gertuago egongo da.
- › Gero, taula lau koadranteetan banatzen da:



- › A koadrantea: zeregin errazak edo onargarriak, balio-ekarpen txikikoak.
- › B koadrantea: zeregin zailak, balio-ekarpen txikikoak.
- › C koadrantea: zeregin zailak, balio-ekarpen handikoak.
- › D koadrantea: zeregin errazak edo onargarriak, balio-ekarpen handikoak.

Lehentasunak ezartzerakoan, gomendatzen dugu arreta ematea balio-ekarpen handiagoko zereginiei, hots, C eta D koadrantean daudenei.

- › C koadrantea: zeregin zailak, balio-ekarpen handikoak. Haien egikaritzapena nola erraztu? Proiektua onargarriagoa izateko zer egin dezakegun aztertzeke eztabaida sortu —faseka egikaritu, aurre-diagnostikoa egin, etab.—. Prozesua ezarri ostean, D koadrantera pasako gara.
- › D koadrantea: zeregin erraz edo onargarriak, balio-ekarpen handikoak. Proiektu horiek egikaritzeko hautatuko dira.

Proiektu-zerrenda daukagunean, haietan sakontzea proposatzen da:

- › Proiektuak irizpide bakoitzean (jatorria, helburuak, jasangarritasuna, bideragarritasuna) zenbateko portzentajea duen aztertzea.
- › Ehuneko horiek areagotzen dituzten proiektuetan aldaketak sar daitezkeen baloratzea, eta elementu bakoitzaren oharren eremuan erregistratzea.
- › Proiektuei lehentasuna ematea, batetik bostera, barne-bozketa anonimoaren bidez.
- › Bost proiektuen inguruan eztabaidatutako alderdi garrantzitsuenekin laburpen bat idaztea, akta modura, hartutako erabakiekin batera proiektuen kudeaketarako aintzat hartuak izan daitezen.

Proiektu bakoitzaren informazioarekin proiektuaren fitxa osatuko da gaur arte aurreikusitako eta oraindik definitzeko dauden egikaritzapeneko elementuekin: epeak, arduradunak, alderdi finantzarioak, aurreikusitako inbertsioak, etab.

Amaitzeko, Getxo Kirolakek eskuragai dauden baliabide finantzarioak baloraziorik onena lortu duten proiektuen artean banatuko ditu. Proiektua osorik egikaritzeko baliabideen beharra hartuko da banaketa-irizpidetzat.

Baliozkotzeko ariketa bakoitza erregistro-zenbakia, data eta irizpideak eta galderak ezartzen dituen prozesuari erreferentzia egiten dion akta batean jasota geratu behar da. Baliozkotze-erregistroa eta lehentasunezko proiektuen zerrenda (eta haien egikaritze-egoeraren informazioa) **izaera publikokoak eta eskuraerrazak izango dira**. Agiri honen **I. eranskinean** lehenbiziko lehenespen-jardueraren emaitza ikus daiteke.

7. LEHENTASUNEZKO IRIZPIDEEN ALDAKETAK

Ezarritako irizpideak eta dagozkien galderak eta erantzunak egoera zehatzetan alda daitezke. Agiri honetan proposatzen den metodologiaren bidez, proiektu berriei ekiteko edo errealitate berriei erantzuteko irizpide, galdera eta erantzunak ezarriko dira.

8. KOMUNIKAZIOA

Lehentasunezko prozesuan *thinking Fadura*-ri lotutako proiektuen **gardentasuna** bermatzeko, komunikazioko mugarri hauek ezarriko dira:

- › **Lehentasunezko metodologia ezartzea.** Lehentasunezko metodologia onartzeko agiri bat prestatu behar da, *thinking Fadura* webeko dokumentazio-sistemaren informazioa areagotuko delarik.
- › **Lehentasunezko irizpideak ezartzea.** Lehentasunezko irizpideak sartu edo aldatu aurretik erregistroetan jasota geratu behar dira, besteak beste: erregistro-zenbakia, data, inplikaturako agenteak, akta eta puntuazioa.
- › **Proiektuen zerrenda baliozkotzea.** Proiektuak baliozkotzeko azken prozesuak erregistro bat sortzen du, datu hauekin: erregistro-zenbakia, data, inplikaturako agenteak, akta eta proiektuen zerrenda.

Oso garrantzitsua da baliozkotutako proiektuen zerrenda (eta haien egikaritze-egoera) **eskuraerraza izatea**.

9. PROIEKTUAK EGIKARITZEA

Getxoko herritarrek etorkizuneko parkea diseinatzeko lagundu dute *thinking Fadura* prozesuari esker. Haren diseinua jada ez dago pertsona adituen eskuetan, partaidetza-prozesuaren emaitzen interpretazioa egin eta horren arabera jarduera-proposamenak eta proiektuak praktikara eramaten dituztenak.

Herritarren partaidetzarekin posible izan da irtenbide berritzaileak lortzea, beharrei arreta ematea eta herritarrei baliabideak erraztea. Orain, partaidetza-prozesutik eratorritako jarduera-proposamenak gauzatu behar dira, herritarren partaidetza bazter utzi gabe betiere.



Getxo

KIROLAK

bizi ezazu

www.thinkingfadura.eus